



AGINDUA, 2024KO MARTXOAREN 25EKOA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, ERABILERA TURISTIKOKO ETXEBIZITZEI ETA ETXEBIZITZA PARTIKULARRETAKO LOGELEI BURUZKO UZTAILAREN 3KO 101/2018 DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEN DUENA.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.36 artikulua araberan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, Konstituzioaren 148.1 18. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, turismoaren arloko eskumen eskusiboa.

Hiri-errentamenduen Legearen aldaketak, erabilera turistikoko etxebizitzak haren aplikazio-eremutik kanpo utzi zituenez, Euskadiko turismo-araudian arautzera behartu zuen, batetik, jarduera eta zerbitzu turistikoen erabiltzaileen eskubideen babesa bermatzeko, eta, bestetik, kalitatezko eskaintza bermatzeko. Horregatik, Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legeak ostatu-enpresa turistikoen esparru juridiko orokorra ezarri du, eta horien artean daude erabilera turistikoko etxebizitzak.

Uztailaren 28ko 13/2016 Legearen V. tituluko (Turismo-jarduera) III. kapituluaren (Ostatuko turismo-enpresak) 8. atalak («Erabilera turistikoko etxebizitzak eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logeletako ostatua») honako artikulua hauetan ezartzen du horien erregulazioa:

- 53. artikulua: definizioa eta aplikazio-eremua arautzen ditu, eta honako hau adierazten du: "erabilera turistikoko etxebizitzak dira turismo- edo opor-arrazoiengatik ostatu gisa eskaintzen edo merkaturatzen diren etxebizitzak, edozein motatakoak direla ere. Jabeak, ustiatzaileak edo kudeatzaileak hirugarren batzuei lagatzen dizkie aldi baterako, eta zuzenean edo zeharka merkaturatzen ditu, behin eta berriz edo ohikotasunez eta kontraprestazio ekonomiko baten truke, berehala erabiltzeko moduan. Errentapeko etxebizitza bat erabilera turistikorako lagaz gero, errentariak aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena, eta inskribatuta egon beharko du Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan. Era berean, egin nahi duen jardueraren berri eman beharko dio, nahitaez, errentatzaileari."(53.1 artikulua).

"Ezin izango da etxebizitzarik errentatu jarduera turistikoa hasteko beharrezkoa den alde zuzeneko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe Euskadiko Turismo Administrazioan. Lege honen ondorioetarako, klandestinitzat joko da adierazpen hori egin gabe etxebizitzak kontratatzea edo ustiatzea. ". (53.6 artikulua).

"Erregelamenduz zehaztuko da zein den erabilera turistikoko etxebizitzaren gehieneko ahalmena, baina ezingo da inola ere gainditu Etxebizitzari buruzko Euskadiko 3/2015 Legearen 62.2 artikuluan edo hura ordeztzen duen araudian definitzen diren ratioen



arabera zehaztutako ostatatu-kopurua, ratio horren barnean sartuta bai egoiliarrek eta bai turismo-erabiltzaileak.

Era berean, Erregelamenduz garatuko dira establezimendu horien funtzionamendu-araubidea, erabilera turistikoko etxebizitzek bete behar dituzten betekizun eta baldintzak eta bereizgarriak. "(53.8 artikulua).

- 54. artikulua: erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logeletako ostatua arautzen du, eta, beraz, «Ostatu-zerbitzuen sustapena, eskaintzaren koordinazioa eta erabiltzaileen eskubideak bermatzeko, etxebizitza partikularretako logeletan oporretarako edo turismorako ostatu-zerbitzuak prezio bidez eskaintzen dituztenek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko diote Euskadiko Turismo Administrazioari, adieraziz trafiko turistikoko jarduerak egiten dituztela. Hori egin ezean, 53.6 artikuluan adierazitako ondorioak izango dituzte.» (54.1 artikulua).

"Erregelamenduz ezarriko da zenbat plaza eskaini ahal izango diren gehienez ere etxebizitza berean. Gainditzen bada baimendutako turismo-plazen kopurua, ostatua hotel-establezimendutzat joko da, eta, beraz, horrelako establezimenduei ezartzen zaizkien betekizun eta baldintza berak bete beharko dira. "(54.3 artikulua).

"Erregelamenduz garatuko dira erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelen funtzionamendu-araubidea, bete behar dituzten betekizun eta baldintzak eta bereizgarriak." (54.8 artikulua).

Aipatutako lege-manuak garatzeko eman zen 101/2018 Dekretua, uztailaren 3koa, erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeetara buruzkoa. Dekretu horrek, besteak beste, honako hauek arautzen ditu: ostatu-lagapenaren araubide juridikoa, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroko inskripzioa, ostatu-jardueraren funtzionamendu-baldintzak eta -araubidea, eta turismo-jarduera eskaintzarekin lotutako betebeharrak.

Etxebizitza eta etxebizitza partikularretako logeetara buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretuan ez da jasotzen erabilera turistikoko etxebizitzetara eta logelen kokapenari buruzko mugarik. Hala ere, haren lehen xedapen gehigarriak, «landa-ingurunekeko turismo-ostatua» izenekoak, 101/2018 Dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo utzi zituen «landaguneetan edo lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako tokietan kokatutako erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeletan emandako ostatuak, bai, halaber, nekazaritza-ustategietan integraturiko baserrietan nekazariak eta abeltzainak ematen dituzten ostatu-zerbitzuak, eta eskualdeko edo inguruko ohiko arkitektura tradizionala duten eraikinetan edo eraikuntzetan emandako ostatu-zerbitzuak. Kasu horietan, landa-ingurunekeko turismo-ostatuko establezimenduen araudi espezifikoak aginduko du.».

Xedapen gehigarri horrekin, beraz, landa-ingurunekeko turismo-ostatuko establezimenduak arautzen dituen apirilaren 16ko 199/2013 Dekretuan jasotako araudira jotzen da.

Arau-igorpen hori ez da eraginkorra izan, landa-inguruneko turismo-ostatuko establezimenduak arautzen dituen apirilaren 16ko 199/2013 Dekretua indargabetutako Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legean aurreikusitako tipologiaen arabera delako, eta 13/2016 Legearen ondoriozko zehaztapen berrien arabera aplikatu behar delako.

Ondorioz, 101/2018 Dekretuaren xedapen gehigarriak 199/2013 Dekretura egiten duen igorpena (aipatzen duen "landa-inguruneko turismo-ostatuko establezimenduak arautzeko berariazko araua") hutsik dago, ez baitago aurreikuspenik erabilera turistikoko etxebizitzaren eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelen ostatu-modalitateari aplikatzeko. Horrek arau-hutsune bat eragin du, eta ezin izan da bete aipatutako xedapen gehigarrian jasotako agindua.

Horregatik, argitu behar da erabilera turistikoko etxebizitzari eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelei aplikatu beharreko esparru juridikoa, landa-ingurunean kokatuta egon ala ez.

Dekretu-proiektu honen xedea da erabilera turistikoko etxebizitzari eta etxebizitza partikularretako logelei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretua aldatzea, eta haren lehen xedapen gehigarria indargabetzea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen xedea da xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzea, eta 12.1 artikuluan ezartzen du prozedura horiek dena delako gaien eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko direla. Era berean, lege horren 13.1 artikulua hasteko agindu horrek bete behar dituen baldintzak eta gutxieneko edukia ezartzen ditu.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Agintzea has dadila Erabilera turistikoko etxebizitzari eta etxebizitza partikularretako logelei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura:

1.- Xedea eta helburua

Proiektatutako xedapenaren xedea da uztailaren 3ko 101/2018 Dekretua aldatzea, haren lehen xedapen gehigarria indargabetuz, eta, horrekin batera, erabilera turistikoko etxebizitzari eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelei aplikatu beharreko esparru juridikoa definitzea eta argitzea, landa-ingurunean kokatuta egon ala ez, eta arlo horretako arau-hutsunea betetzea.

2.- Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Araua bideragarria da juridikoki eta materialki, Euskadiko turismo-araudiaren parte den dekretu bat aldatzean datzalako. Zehazki, proposatzen den arau-proiektuak arautzen duen gaia Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.36 artikuluan babestuta dago. Artikulu horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du turismoaren arloan.

Arauk jarduera ekonomiko batean aritzeko baldintzei eragiten dienez, proiektuak errespetatu egiten du, 13/2016 Legeak diseinatutako sistemaren arabera – Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, oinarritzat hartuta –, enpresa-askatasunaren printzipioa, kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko eskubidearekin bateragarri diren terminoetan.

Eskumenari dagokionez, arau-proiektuak jasotzen duen gaia ez zaie berariaz eta eskusiboki esleitzen lurralde historikoei azaroaren 25eko 27/1983 Legearen (Autonomia Erkidegoetako Erakundearen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzkoa) 7. artikuluan.

Azkenik, adierazi behar da ezen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuan ezarritakoaren arabera, gaiaren arabera, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari dagokiola organo eskuduna.

3.- Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak

Arau honek ordenamendu juridikoan izango duen eragina lehendik dagoen dekretu bat aldatzean datza; zehazki, Erabilera turistikoko etxebizitzetako eta etxebizitza partikularretako logelei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretua aldatzean.

Horren arrazoia hura egokitzea da, turismo-erabilerako etxebizitzetako eta logelen arau-esparrua argitze aldera; izan ere, arau-multzoaren egoera osatugabea gertatu da, eta egungo erregulazioa ez dator bat zentzuarekin, eta baliabideak antolatzea turismo-araudiaren helburuetarako.

4.- Aurrekontuan izango duen eragina

Arau honetan aurreikusitakoak ez dakar aldaketarik orain arte Eusko Jaurlaritzaren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuetan, eta ez dakar Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio honi betebeharrak ekonomiko zuzenik sortzea, eskura dauden ohiko aurrekontu-baliabideez gain finantzaketa gehigarria behar duenik; beraz, ez du eraginik aurrekontuan.

Lortu nahi diren helburuak kontuan hartuta, arau berriak ez dakarkie administrazio-kargarik herritarrei.

5.- generoaren gaineko eragina

Izapidetzen ari den agindu-proiektuak ez du inolako eraginik genero-ikuspegitik. Beraz, ez da generoaren arabera eraginari buruzko txostenik egin behar; izan ere, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren lehen jarraibidearen 2. puntuaren a) letran ezarritako salbuespena aplikatu daiteke. Ebazpen horren bidez, Gobernu Kontseiluaren Erabakia, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartzekoa, argitaratu zen: "Generoaren ikuspegitik garrantzirik ez dutenak, emakumeen eta gizonen egoeran eraginik ez dutelako edo eragin txikia dutelako".

Kasu horretan, generoaren arabera eraginari buruzko txostenaren ordez, txosten bat egin beharko da, eta bertan behar bezala justifikatu ikuspegi horretatik garrantzirik ez duela, aipatutako jarraibideen II. eranskinean aurreikusitako baldintzetan, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak dagokion egiaztapen-txostena egingo du.

6.- Gaia dela-eta egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak.

Aldez aurretik, adierazi behar da prozedura ororen izapidetzea, zeinaren izapideak eta txostenak jarraian zehazten baitira, izapidetze elektronikorako Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez egingo dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2012ko azaroaren 27ko Erabakiari jarraikiz.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko aginduak adieraziko ditu proposatutako araudiaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak.

Adierazitakoa kontuan hartuta, jarraian zehazten dira aurreikusitako aldaketaren dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko behar diren izapideak eta txostenak:

A) Aldez aurreko kontsulta herritarrei

6/2022 Legearen 11. artikulua arabera, aurretiazko kontsulta publikoa egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, 15 eguneko. Kontsulta horretan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde ordezkatzailen iritzia eskatuko dira, araua onartzeko beharri eta egokitasunari buruz, arauaren xedeari buruz eta konpondu nahi diren arazoei buruz.

B) Hasteko agindua

Kontsulta publikoaren ondoren, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak dekretu-proiektua egiteko prozedura hasiko du, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

XOEPLren 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, eta Legesarea ezagutza partekatzeko lankidetzaren gunean txertatuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarkitaulan argitaratuta, automatikoki jakinaraziko zaie Jaurlaritza osatzen duten sail guztiei, ekimenari buruzko oharra egin ditzaten.

Testua bi hizkuntza ofizialetan idatziko da, euskaraz eta gaztelaniaz, argitaratua izan dadin.

C) Erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko uztailaren 26ko 101/2018 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua idaztea.

D) Aldez aurreko onarpena

Dekretu-proiektuaren testua egin ondoren, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren agindu baten bidez aurkeztuko da, aldez aurretik onartua izan dadin, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, espedientea izapidetzeko eskumena duen organoak arau-eragina aztertzeko memoria bat egingo du nahitaez, aipatutako xedapenean aurreikusitako baldintzetan eta edukiarekin.

Prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazioa Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen xedatutakoarekin bat etorriz.

E) Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Txosten hauek eskatuko dira:

- Sailaren txosten juridikoa: beharrezkotzat jotzen da txosten juridiko bat egitea, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Memoria ekonomikoa: memoria ekonomiko bat egingo da, aurreikusitako eragin ekonomikoa zehazteko, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan xedatzen den bezala.
- Enpresan duen eraginari buruzko txostena: Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 33/2012 Dekretuak, xedapen orokorrek egiteko prozeduran euskararen erabilerearen normalizazioaren ikuspegi txertatzeko araubidea ezartzen duenak, 2. artikuluan agindutakoari jarraituz, xedapen orokorrek euskararen

erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzekoa.

- Herritarrek Hartzeko eta Zerbitzu Digitalak Zuzendaritzaren txostena.
- Hazi Fundazioaren txostena.
- Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoaren txostena. 9/2007 Legearen 4.1 o) artikulua ezartzen du nahitaezko txostena eskatuko dela, proiektuak kontsumitzaile eta erabiltzaileei eragiten dielako.
- Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeari kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2023 Legearen 10.a) artikulua araberak, kontsultaren nahitaezkotasuna ezartzen baita, izapidetzen ari den arau-proiektuak gai horri eragiten dielako.
- Proiektua Euskadiko Turismo Mahaia helaraztea (Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen 5/2015 Dekretuaren 2.c) artikulua). Kontsulta-organo horri dagokio turismoaren arloko arau-proiektu berriak eztabaidatu eta aztertzea.
- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena.
- Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen 3.5 artikulua araberak, gai horri eragiten dioten proiektuetan nahitaezko irizpena ematen baita.

F) Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da. Izapide horren bidez, herritarrek parte hartzeko eskakizuna beteko da.

Beraz, bidezkoa da entzunaldia ematea arauak haien eskubide eta interes legitimoak eragiten dien elkarte eta erakunde adierazgarriak, egin ditzaketen ekarpen gehigarri guztiak jasotzeko, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikulua betez.

G) Beste administrazio batzuek parte hartzea eta haiei kontsulta egitea:

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 18. artikulua betez. Xedapenaren testuaren alde aurreko onarpena argitaratu eta hilabeteko epe erkidearen barruan, xedapen orokorrak egiteko prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie foru-aldundiei eta EUEDELI.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 16. artikuluan xedatutakoaren araberak, nahitaezko txostenen eta irizpenen eskaera, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea eta hasteko agindu honen bidez agindutako beste administrazio batzuen parte-hartzea eta kontsulta aldi berean eta hilabeteko epe komunean egingo dira, alde aurreko onarpena duen xedapenaren testua Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Ez da beharrezkotzat jotzen Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea.

H) Nahitaezko txosten eta irizpen funtsezkoak.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, espedientea aurreko artikuluetan aurreikusitako izapideen arabera osatu ondoren, honako txosten hauek eskatu eta bete beharko dira:

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena: 8/2012 Legearen 3.1 b) artikulua arabera, txostena nahitaezkoa da, arau-proiektua politika ekonomiko eta sozialarekin lotuta dagoelako.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena: XOEPLren 23. artikuluan ezarritakoa betetz, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena eskatuko da, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluaren IV. kapituluaren ezarritakoaren arabera.

I) Azken espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Azken espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera osatuko da. Era berean, prozedura osoari buruzko memoria labur bat erantsiko da, 24. artikulua 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

J) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea.

Espedientea erabat izapidetu ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuko da, eta dokumentazio bera bidaliko da Eusko Legebiltzarrera, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak eskatutakoarekin bat etorritik.

K) Gobernu Kontseiluak onartzea.

Egiteko prozedura amaituta, Gobernu Kontseiluak behin betiko onartu beharko du dekretu-proiektua, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

L) Itzulpen edo idazketa elebidunerako teknika.

Dekretu-proiektua ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 5. artikuluan aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren itzulpena erabiliko da, 6/2022 Legearen 27.3 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

M) Urteko Araugintza Plana.

Proiektatutako araua berariaz sartu da 2024rako Urteko Araugintza Planean, zeina Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu baitzuen 2024-02-22an.

Bigarrena.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuaren 8.1.a) artikulua arabera, Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzako Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza izendatzea prozedura izapidetzeko organo arduradun.

Hirugarrena.- Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legesarea lankidetzagunean jakinaraztea, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua
JAVIER HURTADO DOMINGUEZ